Leioa
UDALA-AYUNTAMIENTO
www.leioa.eu

DEKRETU ZK./DECRETO NUM.
2025005548
30/12/2025

| | |
|---|---|
| Erref/Ref: | **2025/80L/BASES** |
| Proz/Proc: | **Elaboración, Gestión de la Convocatoria y Concesión de Subvenciones** |
| **Servicios Sociales** | |

Diru-laguntzei buruzko araudia aintzat hartuta,

Leioako Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorra aintzat hartuta

Leioako Udaleko Diru-laguntzen Plan Estrategikoa eta horri dagokion kreditua egokia eta nahikoa dela aintzat hartuta,

Gizarte Politikak Sailaren txostena aintzat hartuta, ebazpen honen zio moduan baliatu dena, dekretua proposatutakoarekin bat dator eta,

Apirilaren 2ko Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1 f) artikuluak eta Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 10.4 artikuluak, besteak beste, ezarritako eskuduntzak erabiliz, honako hau

Considerando la normativa en materia de Subvenciones,

Considerando la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Leioa,

Considerando el Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Leioa y la existencia de crédito adecuado y suficiente al respecto,

Considerando el informe del Área de Políticas Sociales que sirve de motivación a la presente resolución, la cual adopta el acuerdo en el sentido en aquél propuesto,

En ejercicio de la competencia establecida entre otros por los arts. 21.1 f) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de Bases de Régimen Local, y 10.4 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones

Udalaren esku-hartzeak ikuskatu du proposamena, data honetan: 29/12/2025, erreferentzia-zk.: 2025/2246 eta emaitza: Fiscalización de conformidad .

La propuesta ha sido fiscalizada por la intervención municipal en fecha 29/12/2025, con nº de referencia 2025/2246 y con resultado Fiscalización de conformidad.

**XEDATZEN DUT:**

**DISPONGO:**

**Lehenik**.- **2026. URTEAN EGUNEKO ARRETA ZERBITZUARI LOTUTAKO PRESTAZIORAKO** ohiko diru-laguntzaren deialdia eta berariazko oinarri arautzaileak onartzea, eranskinean isladatzen den edukiarekin eta horretarako espedientean dauden eskaera- ereduak.

**Primero**.- Aprobar la convocatoria y las bases específicas reguladoras de las subvenciones de carácter ordinario para la **PRESTACIÓN VINCULADA AL SERVICO DE ATENCIÓN DIURNA DURANTE EL AÑO 2.026** con el contenido que se transcribe en el anexo, asi como

Documento firmado electrónicamente (RD 1671/2009). La autenticidad de este documento puede ser comprobada mediante el CSV: 15704543571633572763 en https://udaletxean.leioa.eus/validacion

los formularios al efecto que constan en el expediente.

**Bigarrenik**.- Dagokion arloei ebazpenaren berri ematea, Egoitza Elektronikoan eta Gardentasunaren Atarian argitaratzeko, eta nahitaezko informazioa Diru-laguntzen Datu-base Nazionalera bidaltzea.

**Segundo**.- Dar cuenta de la resolución a las áreas para la publicación oportuna en Sede Electrónica, y Portal de Transparencia y remitir la información preceptiva a la Base de Datos Nacional de Subvenciones

**Hirugarrenik**.- Ebazpenaren berri eman, Kontuhartzailetza eta Kontabilitate sailera.

**Tercero**.- Dar cuenta de la resolución al área de Intervención y Contabilidad.

**2026an EGUNEKO ARRETA-ZERBITZUARI LOTUTAKO PRESTAZIORAKO OHIKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIAREN OINARRI ARAUTZAILEAK**

**BASES REGULADORAS DE LA CONVOCATORIA DE SUBVENCIONES DE CARÁCTER ORDINARIO PARA LA PRESTACIÓN VINCULADA AL SERVICIO DE ATENCIÓN DIURNA DURANTE EL AÑO 2026**

Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak, bere zerbitzu-katalogoan, 65 urtetik gorakoentzako Eguneko Zentroa jasotzen du eman beharreko zerbitzutzat, eta bizi-kalitate eta autonomia pertsonal hobea lortzera bideratu behar da, aukera-berdintasunaren esparru eraginkorrean, honako helburu hauen arabera:

La Ley 39/2006 de 14 de diciembre de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de Dependencia, en su catálogo de servicios, recoge el Centro de Día para mayores de 65 años como uno de los servicios a prestar, debiendo orientarse a la consecución de una mejor calidad de vida y autonomía personal, en un marco de efectivo de igualdad de oportunidades, de acuerdo con los siguientes objetivos:

a) Bere ohiko ingurunean modu autonomoan bizi dadin erraztea, nahi duen eta ahal den denbora guztian zehar.
b) Bere bizitza pertsonalaren, familiakoaren eta sozialaren eremu guztietan tratu duina ematea, eta komunitateko bizitzan aktiboki sartzea erraztea.

a) Facilitar una existencia autónoma en su medio habitual, todo el tiempo que desee y sea posible.
b) Proporcionar un trato digno en todos los ámbitos de su vida personal, familiar y social, facilitando su incorporación activa en la vida de la comunidad.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, Eusko Legebiltzarrarenak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoko prestazio eta zerbitzuetarako sarbidea bermatzen du eskubide unibertsal eta subjektibo gisa, eta eskubide hori betetzea erreklamatu ahal izango dute, administrazio-bidean eta jurisdikzio-bidean, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema unibertsalizatzeko Legeak (2016-12-25) ezartzen duen epea amaitzen denean, baldintza orokor eta espezifiko hauek betetzen dituzten pertsona guztiek: Euskal Zerbitzu Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoko zerbitzu edo prestazio ekonomikoa.

La Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, del Parlamento Vasco garantiza el acceso a las prestaciones y servicios del Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales como un derecho universal y subjetivo cuyo cumplimiento podrán reclamar, en vía administrativa y jurisdiccional, cuando venza el plazo que establece dicha Ley para la universalización del Sistema Vasco de Servicios Sociales (25-12-2016), todas la personas que cumplan los requisitos generales y específicos, de acceso a cada servicio o prestación económica del Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales.

Katalogo horren barruan eguneko arreta-zerbitzua sartzen da, lehen mailako arretako Gizarte-

Dentro de dicho Catálogo se incluye el servicio de atención diurna como servicio a prestar por los

zerbitzuek eman beharreko zerbitzu gisa, bai eta udalek zerbitzu horiek kudeatzeko duten eskumena ere. Azkenik, urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzkoak, lege hori garatzen du, 33.2.a) 1.7 artikuluan zerbitzu hori jasotzen baitu eta dagokion eranskinean deskribatzen baitu.

Servicios Sociales de atención primaria y la competencia de los Ayuntamientos en su gestión. Por último, la meritada Ley es objeto de desarrollo por parte del Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, que en su artículo 33.2. a) 1.7 contempla este servicio y lo describe en el anexo correspondiente.

**1 artikulua.- DEIALDIAREN XEDEA ETA HELBURUA**

Oinarri horien helburua Leioako udalerrian mendekotasun arriskuan edo egoeran dauden pertsonentzako Eguneko Arreta Zerbitzuari lotutako prestazio bat ematea arautzea da.

Eguneko Arreta Zerbitzura egunean zehar joateko dispositibo bat da. Bertan intentsitate txikiko laguntza eskaintzen da, erabiltzaile bakoitzaren arreta-premia espezifikoei lotuta, eta mendekotasun-egoeran edo arriskuan dauden adinekoen autonomiari eusten laguntzea du helburu (MBB baremoan 23 eta 39 puntu bitarteko puntuazioarekin), beren ohiko bizitza-ingurunean irautea eta sozializatzea erraztuz, konpentsatuz, hala badagokio, isolamendu-egoerak.

**1.1.- Eguneko arreta-zerbitzuaren barruko prestazioak.**

Gizarte Zerbitzuak

- Informazioa.
- Balorazioa eta jarraipena.
- Esku-hartze sozioedukatiboa eta psikosoziala, bai errehabilitaziokoa (MBB jarduerak egiteko gaitasunak estimulatzeko trebetasunak eta ariketa errazak garatzea), bai hezkuntzakoa (aisialdia, hezkuntza-jarduera kulturalak).
- Gizarte-laguntza.
- Garraio egokitua, behar izanez gero.

Beste prestazio osagarri batzuk

- Mantenua
- Higiene pertsonala.

**1.2.- Zerbitzuaren intentsitatea, maiztasuna eta ordutegia.**

Zerbitzuaren intentsitatea erabiltzaileen beharren banakako ebaluazioaren arabera ezarriko da, eta honako hauen artean alda daiteke:

- Lanaldi osoa

**Artículo 1- OBJETO Y FINALIDAD DE LA CONVOCATORIA**

Estas Bases tienen como objetivo regular la concesión de una prestación vinculada al Servicio de Atención Diurna para personas en riesgo o situación de dependencia en el municipio de Leioa.

El Servicio de atención Diurna es un dispositivo al que acudir durante el día, en el que se ofrece un apoyo de baja intensidad ligado a las necesidades específicas de atención de cada usuario/a y que tiene como objetivo contribuir al mantenimiento de la autonomía de las personas mayores en riesgo o situación de dependencia (con una puntuación entre 23 y 39 puntos en el baremo BVD), favoreciendo su permanencia en su entorno de vida habitual y su socialización, compensando, en su caso, situaciones de aislamiento.

**1.1.- Prestaciones incluidas dentro del servicio de atención diurna.**

De Servicios Sociales

- Información.
- Valoración y seguimiento.
- Intervención socioeducativa y psicosocial, tanto de tipo rehabilitadora (desarrollo de habilidades y ejercicios sencillos de estimulación de capacidades para realizar actividades BVD) como educativa (ocio, actividades educativoculturales.
- Acompañamiento social.
- Transporte adaptado en caso de necesitarlo.

Otras prestaciones complementarias

- Manutención
- Higiene personal.

**1.2.- Intensidad, frecuencia y horario del Servicio.**

La intensidad del servicio se establecerá en función de la evaluación individualizada de las necesidades de las personas usuarias, pudiendo variar entre las siguientes:

• Lanaldi erdia

Maiztasuna egunerokoa izan daiteke (astelehenetik ostiralera, ez jaiegunetan) edo astean behin baino gehiagotan joan daiteke zentrora.

Zerbitzuaren ordutegia egunekoa izango da.

**2. artikulua: ONURADUNAK**

Prestazio honen onuradun izan ahalko dira baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak:

- Leioako udalerrian erroldatuta egotea eta bertan benetan bizitzea, bai eskaera egiteko unean, bai eguneko arreta-zerbitzuari lotutako prestazioa jasotzen den denbora guztian. Baldintza horretatik salbuetsi ahal izango da familia-errotazioko egoeran dagoen pertsona, betiere proposamen teknikoa eginez gero. Baldintza horretatik salbuetsi ahal izango da familia-errotazioko egoeran dagoen pertsona, betiere proposamen teknikoaren arabera. Kasu horretan, erroldatzeko baldintzak zaintzaile nagusiari eskatuko dio
- 65 urte edo gehiago izatea.
- Arrisku- edo mendetasun-egoeran dagoen pertsonaren kalifikazioa aitortua izatea, MBB baremoan 23 eta 39 puntu bitarteko puntuazioarekin, eta baremo horrek urtebete baino gehiagoko antzinatasuna ez izatea. Aurreko ekitaldietan prestazio hori jaso duten pertsonen kasuan, mendekotasun-balorazioa bi urtekoa izan daiteke.
- Bere baldintzetara egokitutako egoitza edo bizilekua izatea.
- Banakako Arreta Programak Eguneko Arreta Zerbitzua jasotzea, eskatzailearentzat baliabiderik egokiena den aldetik.
- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako gizarte-laneko teknikarien preskripzio teknikoa izatea, Eguneko Arreta Zerbitzua baliabide egoki gisa jasoko duena, eta eskatzen dituen gizarte-zerbitzuen intentsitatea, maiztasuna eta prestazioak jasoko dituena.
- Ingurunean behar bezala irautea bermatuko duen gizarte-laguntza nahikoa izatea.
- Intentsitate txikiko laguntza eskatzea baliabideak estaltzen dituen beharrak estaltzeko.
- Gaixotasun infekzio-kutsakorra edota

• Jornada Completa
• Media Jornada

La frecuencia puede ser diaria (Lunes a Viernes no festivos) o acudir al centro varias veces por semana.

El horario del servicio será diurno.

**Artículo 2: PERSONAS BENEFICIARIAS**

Podrán ser beneficiarios/as de esta prestación las personas que cumplan los siguientes requisitos:

- Tener empadronamiento y residir de manera efectiva en el municipio de Leioa tanto en el momento de realizar la solicitud como durante todo el tiempo de percepción de la prestación vinculada al servicio de atención diurna. Podrá exceptuarse de este requisito a la persona en situación de rotación familiar, siempre a propuesta técnica. En este caso, el requisito de empadronamiento de exigirá a la persona cuidadora principal.
- Tener 65 años o más.
- Tener reconocida la calificación de persona en situación de riesgo o dependencia con una puntuación de entre 23 y 39 puntos en el Baremo BVD y que ésta no tenga una antigüedad superior a un año. En el caso de personas que hayan sido perceptoras de esta prestacion en ejercicios anteriores, la antigüedad de la valoración de dependencia podrá ser de dos años.
- Disponer de un domicilio o residencia adecuado a sus circunstancias.
- Que el Programa Individual de Atención recoja el Servicio de Atención Diurna como el recurso más idóneo para la persona solicitante.
- Contar con Prescripción Técnica del personal técnico en trabajo social de los Servicios Sociales de Base que recoja el Servicio de Atención Diurna como recurso adecuado, y que incluirá la intensidad, frecuencia y prestaciones de Servicios Sociales que requiere.
- Disponer de apoyo social suficiente que garantice la adecuada permanencia en el entorno.
- Requerir un apoyo de baja intensidad para la cobertura de las necesidades cubiertas por el recurso.

buruko gaixotasuna izanez gero, dagokion tratamendua ez errefusatzea.

- Jokabide-nahasterik ez izatea eta/edo jokabide-portaerak izatea, zerbitzuaren funtzionamenduan edo zerbitzuaren ohiko bizikidetzan eragina izan dezaketenak, edo pertsona bera, beste erabiltzaile batzuk edo profesionalak arriskuan jar ditzaketenak.

- Zerbitzuaren berezko zuzkiduren irismenetik eta aukeretatik kanpo osasun-laguntza espezializatua eta/edo iraunkorra behar ez izatea.

1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik abe bizitzeko Legearen testu bateginean ezarritakoaren artikuluaren(en) arabera:

Ezingo diete laguntzarik edo dirulaguntzarik eman sexuan oinarrituta edo 3.1 artikuluan adierazitako diskriminazio anizkoitzeko inguruabarretan oinarrituta diskriminatzen duten jarduerei, ez eta sexuan oinarrituta diskriminazioa egiteagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio- edo zigor-zehapenen bat ezarri zaien pertsona fisikoei eta juridikoei ere, dagokion zehapenean ezarritako denbora-tarte osoan

**3. artikulua.- <u>EGUNEKO ARRETA-ZERBITZUAREN ETA ZERBITZU HORRI LOTUTAKO PRESTAZIOAREN EZAUGARRIAK.</u>**

Zerbitzu hori, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuaren arabera, lurralde-eremuaren barruan eta udal-eskumenaren pean eman beharko litzateke, baina, egia esan, oinarri arautzaile hauek argitaratzen diren unean, Leioako Udalak ez du zerbitzu hori emateko gailu egokirik.

Ondorioz, udalerriak berak baliabide hori eduki ezin duen bitartean (bere garaian arautuko den koordainketa-sistemarekin), Leioako Udalak erabaki egingo du onuradun-izaera aitortzen zaien pertsonei zerbitzuari lotutako prestazio ekonomiko

- No rechazar el tratamiento que corresponda en caso de padecer enfermedad infecto-contagiosa y/o enfermedad mental.
- No padecer trastornos de conducta y/o presentar comportamientos de conducta que puedan afectar al funcionamiento del servicio o la normal convivencia en el mismo, o que supongan riesgo para la propia persona, para otras personas usuarias o para los/as profesionales.

- No precisar una asistencia sanitaria especializada y/o permanente fuera del alcance y posibilidades de las dotaciones propias del servicio.

De conformidad con lo establecido en texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas libres de Violencia Machista contra las Mujeres aprobado por el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, en su(s) artículo(s):

No se podrá conceder ningún tipo de ayuda o subvención a ninguna actividad que sea discriminatoria por razón de sexo o por aquellos factores de discriminación múltiple contemplados en el artículo 3.1. de dicha ley, ni tampoco aquellas personas físicas y jurídicas que hayan sido sancionadas administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo o por el incumplimiento de la normativa en materia de igualdad de mujeres y hombres, durante el período impuesto en la correspondiente sanción.

**Artículo 3-<u> CARACTERÍSTICAS DEL SERVICIO DE ATENCIÓN DIURNA Y DE LA PRESTACIÓN VINCULADA A ESTE SERVICIO.</u>**

Si bien este servicio, según el Decreto 185/2015, de 6 de Octubre, de Cartera de Prestaciones y Servicios del sistema Vasco de Servicios Sociales, debiera de ser prestado dentro del ámbito territorial y bajo competencia municipal, la realidad es que en el momento de publicación de las presentes Bases Reguladoras el Ayuntamiento de Leioa no cuenta con un dispositivo adecuado para poder prestarlo.

En consecuencia, hasta que el propio Municipio no pueda disponer de dicho recurso (con el sistema de copago que se regulará en su momento), el Ayuntamiento de Leioa optará por

bat ematea. Prestazio hori zerbitzu pribatuaren kostuaren faktura aurkeztu ondoren ordainduko da.

conceder a las personas a las que les sea reconocida la condición de beneficiaria, una prestación económica vinculada al servicio que será abonada previa presentación de la factura del coste del servicio privado.

Oinarri arautzaile hauetan jasotako zerbitzuak aldi baterakoak edo iraunkorrak izan daitezke, erabiltzaileak eskatzen dituen beharren arabera eta bertan jasotako gainerako baldintzak betetzen diren kontuan hartuta.

Los servicios contemplados en las presentes Bases Reguladoras podrán ser de carácter temporal o permanente, en función de las necesidades demandadas por el usuario y la concurrencia del resto de requisitos contemplados en el mismo.

**4. artikulua.- ESKABIDEAK AURKEZTEKO TOKIA ETA MODUA.**

Eskabideak Udalaren Herritarrentzako Arreta Zerbitzuetan (HAZ, Udala eta Gaztelubide) eta Udal egoitza elektronikoan (https://udaletxean.leioa.eus) aurkeztu ahal izango dira, baita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean horretarako gaitutako erregistroetan ere, Udalak horretarako izango dituen inprimakietan. Inprimaki horiek Udal egoitza elektronikoan daude eskuragarri.

Beharrezkoa izango da instrukzioko orozkoak irauten duen bitartean Udaleko Gizarte Laneko teknikariekin elkarrizketa izatea. Azken horrek planteatutako premia-egoera baloratuko du, eta eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazio espezifikoa adieraziko du, eskatzailearen egoera pertsonalaren, ondarearen eta eskatutako laguntzaren modalitatearen arabera.

Leioako Udaleko Gizarte Zerbitzuek onuradunen adierazpenak egiaztatu ahal izango dituzte, behar beste datu eta txosten eskatuz beste erakunde publiko edota pribatu batzuei, interesdunaren baimenarekin.

**5- ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA**

Honako dokumentazio hau erantsi behar zaio eskabideari:

- Eskabide-orria, borondatezko Ordezkaritzarekin batera, hala badagokio (G 32 imprimakia). Eskaerarekin batera, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da, sexua dela-eta zehatuta ez dagoela adierazteko.
- E

**Artículo 4- LUGAR Y FORMA DE PRESENTACIÓN DEL LAS SOLICITUDES**

Las solicitudes se presentarán en los Servicios de Atención Ciudadana municipales (SAC Ayuntamiento y Gaztelubide), en la sede electrónica municipal (https://udaletxean.leioa.eus) pudiéndose presentar igualmente en los registros habilitados a tal efecto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, en los impresos que a tal efecto dispondrá el Ayuntamiento, y que se encuentran disponibles en la Sede Electronica Municipal.

Será necesario mantener durante el proceso de instrucción entrevista con el personal técnico en Trabajo Social del Ayuntamiento, quien valorará la situación de necesidad planteada e indicará la documentación específica a presentar junto con la solicitud en función de las circunstancias personales de la persona solicitante, patrimoniales y la modalidad de ayuda solicitada.

Los Servicios Sociales del Ayuntamiento de Leioa podrán verificar las declaraciones de los/as beneficiarios/as, solicitando cuantos datos e informes sean necesarios a otras instituciones o entidades públicas y/o privadas, con el consentimiento del interesado/a.

**5- DOCUMENTACIÓN A APORTAR CON LA SOLICITUD.**

La documentación adjunta que se debe acompañar a la solicitud es la siguiente:

- Hoja de solicitud junto con la Representación voluntaria si procede (Impreso G32). La solicitud incluirá una declaración responsable de no estar sancionada por razón de sexo.

guneko Arretarako Zentroa eskatzailearen beharretara egokitutako zerbitzu gisa jasotzen duen Banakako Arreta Planaren fotokopia.

- Familia-unitateko kide guztien hileko diru-sarreren egiaztagiria (pentsioak eta/edo prestazio pribatuak, lanbide-jardueren errendimendua, banku-interesak, alokairuak, alderantzizko hipotekagatiko kuotak, pentsio-planetatik erreskatatutako kopuruak …).
- Eskatzailearen eta/edo haren familia-unitateko gainerako kideen kontu guztien egungo banku-saldoen ziurtagiriak. (G 17 imprimakia)
- Kontu korronte, diru-gordailu, balore, estatuko bonu eta beste edozein finantza-produkturen azken bi urteetako gordailu-ziurtagiriak edo banku-mugimenduen laburpena, eskatzailearen eta haren familia-unitateko gainerako kideen izenean.

- Banku-kontuan zordunketa egiteko baimena.(E7 imprimakia)
- Eguneko Arreta Zerbitzua ematen duen enpresarekin sinatutako kontratua, zerbitzuaren kostua eta prestazioak jasotzen dituena, garraio-zerbitzua barne hartzen duen zehaztuta.

Bestelako dokumentazioa:

- Epailearen ezgaiketaren kasuan, legezko ordezkaritza egiaztatzen duen dokumentazioaren fotokopia.

- Banantze edo dibortzio kasuan, epaia eta hitzarmen arautzailea.

Dirulaguntzen arloan indarrean dagoen araudiak ezartzen badu ere diruz lagun daitekeen gastuaren zenbatekoa urtean 15.000 eurotik gorakoa bada, onuradunak zerbitzuaren kostuaz bestelako hiru aurrekontu aurkeztu beharko dituela, kasu honetan ez da eskatuko aipatutako aurrekontuak aurkeztea, udalerrian zerbitzu hori ematen duen zentro bakarra baitago. Beste udalerri batera horrelako zerbitzu bat

- Fotocopia del Plan Individual de Atención (P.I.A.) donde se contemple el Centro de Atención Diurna como servicio idóneo a las necesidades de la persona solicitante

- Justificante de ingresos mensuales (pensiones y/o prestaciones privadas, rendimiento de actividades profesionales, intereses bancarios, alquileres, cuotas por hipoteca inversa, cantidades rescatadas de planes de pensiones…) de todos los miembros de la unidad familiar.
- Certificados de saldos bancarios actuales de todas las cuentas de las que sea titular el solicitante y/o los demás miembros de su unidad familiar (Impreso G17)
- Certificados de Depósitos o extracto de movimientos bancarios correspondientes a los dos últimos años de todas las cuentas corrientes, depósitos dinerarios, valores, bonos del estado y cualquier otro producto financiero a nombre de la persona solicitante y de los demás miembros de su unidad familiar.
- Autorización de adeudo en cuenta bancaria. (Impreso E7)
- Contrato suscrito con la empresa prestadora del Servicio de Atención Diurna, que incluya coste del Servicio y prestaciones que comprende, especificando si incluye el servicio de transporte.

Otra documentación:

- En caso de incapacitación judicial, fotocopia de la documentación que acredite la representación legal.

- En caso de separación o divorcio, sentencia y convenio regulador.

Aunque la normativa vigente en materia de subvenciones establece que en el caso de que el importe del gasto subvencionable supere los 15.000 euros anuales, la persona beneficiaria deberá aportar tres presupuestos diferentes del coste del Servicio, no se exigirá en este caso la presentación de los mencionados presupuestos, al existir únicamente un Centro que preste este Servicio en el Municipio. Se considera perjudicial para la estabilidad de la persona usuaria que tenga que acudir a otro municipio a recibir un servicio de este tipo, aun pudiendo existir otro más económico en otro municipio.

jasotzera joan behar duen erabiltzailearen egonkortasunerako kaltegarritzat jotzen da, nahiz eta beste udalerri batean merkeagoa izan daitekeen.

Udal Gizarte Zerbitzuaek beharrezkotzat jotzen badute, dokumentazio osagarria eskatu ahal izango dute.

Aurkeztu beharreko dokumentuak Leioako Udalak dituenean, ez da beharrezkoa izango berriz aurkeztea, betiere zein sailetan eta noiz aurkeztu ziren zehazten bada, bost urte baino gehiago igaro ez badira agiriok aurkeztu zireneko prozedura amaitu zenetik eta aldaketarik izan ez badituzte.

Leioako Udalak, eskuragarri dauden datu-bitartekaritzako sistemen bidez, beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu Administrazioaren esku dauden interesdunen datuei buruz, bai eta diru-laguntza administratiboki izapidetzeko eskatzen den beste edozeini buruz ere, horretarako inprimakietan adierazitakoaren arabera. Administrazio publikoen arteko datu-bitartekaritzarako oinarria honako hauetan zehazten da: pertsona fisikoen babesari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6. artikuluan eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan, non aitortzen baita herritarrek eskubidea dutela administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administraziok egin dituen dokumentuak ez aurkezteko, bai eta beste edozein administraziok egindakoak ere. Hori dela eta, elkarreragingarriak izan daitezkeen datuak dituzten dokumentuak edo ziurtagiriak eskatzeari utziko zaio, betiere interesdunak [edo haren ordezkariak] datu horiek erabiltzearen aurka egiten ez badu; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu. Arrazoi teknikoak direla-eta elkarreragingarritasuna ezinezkoa bada, Leioako Udalak izapideak egiteko behar diren datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu. Era berean, 40/2015 Legearen 155. artikuluak adierazten duen bezala, administrazioek lankidetzan jardun behar dute datu-trukearen inguruan, eta haien esku dauden herritarrei buruzko datuak eman behar dituzte

Ofizioz, honako betekizun/informazio hauek

En el supuesto de que los Servicios Sociales municipales lo consideren conveniente, podrá solicitarse documentación complementaria.

Cuando los documentos que hay que presentar estuvieran en poder del Ayuntamiento de Leioa, no será necesario volver a presentarlos, siempre y cuando se haga constar la fecha y la dependencia en la que fueron entregados, que no haya transcurrido más de cinco años desde la finalización del procedimiento al que correspondan, y que los mismos no hayan sufrido modificación alguna.

El Ayuntamiento de Leioa, mediante los sistemas de Intermediación de datos disponibles, va a realizar las comprobaciones y consultas necesarias de los datos de las personas interesadas que obren en poder de la Administración, así como cualquier otra requerida para la tramitación administrativa de la subvención, de acuerdo lo señalado en los formularios al efecto. El fundamento para la intermediación de datos entre las Administraciones Públicas se concreta en el artículo 6 del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas y en el artículo 28 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, donde se reconoce el derecho de la ciudadanía a no aportar los documentos que ya se encuentren en poder de la Administración actuante o hayan sido elaborados por cualquier otra Administración, así como la demás legislación aplicable. Es por ello por lo que se dejarán de solicitar documentos o certificados que contengan datos que puedan ser interoperables, siempre y cuando la persona interesada [o su representante] no se oponga al uso de los mismos, en cuyo caso, deberá aportar los datos o documentos correspondientes. Si por causas técnicas la interoperabilidad no fuera posible el Ayuntamiento de Leioa podrá requerir datos o documentos necesarios para la tramitación. Asimismo, existe el deber de las Administraciones de colaborar, tal y como indica el Artículo 155 de la Ley 40/2015 en el entorno de la Intercambio de datos, debiendo facilitar los datos relativos de la ciudadanía que obren en poder de estas.

De oficio se verificará y/o incorporará al expediente, salvo manifestación expresa en contra por parte del interesado, los siguientes requisitos/información:

- Identificación de la persona física

egiaztatu eta/edo sartuko dira espedientean, interesdunak berariaz aurka egiten ez badu:

- Pertsona fisiko identifikazioa.
- Errenta-maila
- Ondarearen maila
- Kontu-maila
- Ondasun higiezinak
- Mendetasun-maila
- Gizarte Segurantzako pentsioak eta laguntza ekonomikoak
- Gizarte-prestazio publikoak
- Katastroko datuak
- Banku-kontuaren zenbakiaren titulartasuna egiaztatzea, eta hirugarrenen fitxan adieraztea.
- Ogasuna betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen justifikazioa.
- Eskatzaileak, indarrean dagoen legeriaren arabera, Gizarte Segurantzarekin derrigorrezko lotura badu, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiarekin ordainketa egunean duela egiaztatzen duen justifikazioaa.

Kasuan kasuko berezitasunak aintzat harturik, Udalak eskatzaileari eska diezaioke egoki deritzon edozein agiri osagarri, eskaeran baloratze aldera

***Eskabideak baztertzea:***

Gainera, ez dira betetzen 13 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa. Honako hauek izango dira ukatzeko arrazoiak:

- Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorra eta oinarri hauetako baldintzak ez betetzea.
- Osatu gabeko eskabideak, gezurrak edota datuak estaltzea

***Osorik ez dauden edo akastunak diren eskabideak:***

Aurkeztutako eskabidea edo erantsitako dokumentazioa osorik ez balego edo konpon

- Nivel de Renta
- Nivel de Patrimonio
- Nivel de cuentas
- Bienes Inmuebles
- Grado de dependencia
- Pensiones y Ayudas económicas de Seguridad Social
- Prestaciones Sociales Públicas
- Datos catastrales
- Verificación de la titularidad del número de cuenta bancaria indicando en la ficha de terceros.
- Justificación de hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias
- Justificación de estar al corriente del pago con la Tesorería General Seguridad Social, en el caso de que la solicitante, de acuerdo con la legislación vigente, tuviera relación obligacional con la Seguridad Social.

El Ayuntamiento podrá, en atención a cada caso concreto, requerir a la persona solicitante cualquier otra documentación complementaria que considere oportuna a los efectos de la valoración de la solicitud presentada

***Exclusion de solicitudes***

Además del no cumplimiento de los requisitios exigidos en el art. 13 Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, serán causas de denegación las siguientes:

- No cumplir con la Ley General de Subvenciones y los requisitos de estas bases.
- L as solicitudes incompletas, falseadas y/o la ocultación de datos.
- 

***Solicitudes incompletas o defectuosas***

En el caso de que la solicitud presentada o la documentación adjuntada sea incompleta o adolezca de algún otro defecto subsanable, se requerirá al solicitante para que proceda a su subsanación en el plazo máximo de 10 días hábiles,

daitekeen akatsik baleuka, eskatzaileari esango zaio 10 lan eguneko gehienezko epean konpontzeko, jakinarazpen hori egin eta biharamunetik zenbatzen hasita. Jakinaraziko zaio, halaber, horrela egin ezean eskabidea bertan behera geratuko dela

**Epea**:

Eskaerak egiteko epea 2026. urte osoan egongo da zabalik, deialdi honen laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, hala ere, 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera aurkeztutako eskabide guztiak hartuko dira kontuan.

a contar desde el siguiente a la notificación del requerimiento, indicándole que de no hacerlo así, se le tendrá por desistido de su solicitud.

***Plazo***:

El plazo de solicitud estará abierto durante todo el año 2026, una vez publicado el extracto de esta convocatoria en el Boletín Oficial de Bizkaia. No obstante, serán tenidas en cuenta todas las solicitudes presentadas desde el 1 de enero de 2026

## 6. artikulua: PRESTAZIOAREN ZENBATEKOA

Prestazioaren zenbatekoa zerbitzuaren hileko benetako kostuaren %15 eta %85 artekoa izango da, eta fakturan agertuko da.

Aurrekontu-aplikazioari eta finantzaketari dagokienez, deialdi hau aurretiazko izapidetze-prozedurari atxikitzen zaio, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 56. artikuluarekin bat etorriz (887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, gastu-espedienteen aurretiazko izapidetzea onartzen duen Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena).

Nolanahi ere, gastu-espedientea aurretiaz izapidetu Nolanahi ere, gastu-espedientea aurretiaz izapidetu behar denez, deialdia ebazteko, kreditu egokia eta nahikoa egon behar da aldez aurretik Leioako Udalaren 2026ko Aurrekontu Orokorretan. Aurrekontu horiek 2025/11/27ko Osoko Bilkuran onartu ziren hasiera batean, eta 2025/12/01eko BAOn argitaratu zen.

Prestazio hori 2026 00600 23104 4801400 partidaren kargura emango da ("Mendeko Adinekoentzako Arreta Zerbitzuak"), baina eskubide subjektiboa denez, hasierako aurrekontu-kreditua, 70.000 eurokoa, ez da mugatzailea izango, eta, ondorioz, handitu egin beharko da, legezko mekanismoen bidez, emandako eskabideak bete arte.

Zenbateko hori 2024-2027 aldirako Leioako Udalaren Diru-laguntzen Plan Estrategikoan jasota dago, 2024ko martxoaren 21eko Osoko Bilkuraren

## Artículo 6: CUANTÍA DE LA PRESTACIÓN

La cuantía de la prestación oscilará entre el 15% y el 85% del coste efectivo mensual del servicio, que figurará en la factura.

Respecto de la aplicación presupuestaria y financiación, esta convocatoria se acoge al procedimiento de tramitación anticipada, de acuerdo con el artículo 56 del Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones por la que se aprueba la tramitación anticipada de expedientes de gasto.

En todo caso, habida cuenta de la condición de tramitación anticipada de expediente de gasto, la resolución de la convocatoria queda supeditada a la previa existencia de crédito adecuado y suficiente para tal objeto en los Presupuestos Generales 2026 del Ayuntamiento de Leioa, aprobados inicialmente en el Pleno del 27/11/25 y publicado en el BOB del 01/12/2025

Esta prestación irá con cargo por tanto, a la partida 2026 00600 23104 4801400("Servicios de Atención a Mayores Dependientes"), si bien al tratarse de un derecho subjetivo el crédito presupuestario inicial
por importe de 70.000 euros no tendrá carácter limitativo debiéndose, en consecuencia, ampliar el mismo si fuese necesario a través de los mecanismos legales existentes hasta cubrir las solicitudes concedidas.

Dicha cantidad aparece recogida en el Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Leioa 2024-2027 aprobado en Acuerdo Plenario de fecha 21 de marzo de 2024.

Erabakian onartua.

**7 artikulua: EMAKIDARAKO PROZEDURA:** Diru-laguntza hauen emakida prozedura norgehiagokaren bidezkoa da.

**8. artikulua.- PRESTAZIOA EMATEKO IRIZPIDE OBJEKTIBOAK:**

Eguneko arreta-zerbitzuari lotutako prestazioa, lehenik eta behin, familia-unitatearen ondare higigarriaren eta higiezinaren arabera zehaztuko da; horrenbestez, familia-unitateko kide-kopuruaren arabera legokiekeen urteko DSBEaren zenbatekoa halako 4 baino gehiagoko ondareetarako, honako irizpide hau aplikatuko da:

DSBEaren zenbatekoaren halako 4tik halako 5 arte ……….. plazaren kostu osoaren %25

